

TRATAMENDUAREN ARDURADUNEN ETA ERAGILEEN ARTEKO KONTRATUAK EGITEKO JARRAIBIDEAK

**TRATAMENDUAREN
ARDURADUNEN
ETA
ERAGILEEN
ARTEKO
KONTRATUAK
EGITEKO
JARRAIBIDEAK**

Aurkibidea

- 1.- Zer da tratamendu-eragilea eta zein da bere eginkizunik garrantzitsuena? ... 4
- 2.- Tratamendu-eragileak zer-nolako tratamenduak egin ditzake bere esku dituzten datuekin? 5
- 3 - Zenbateko erabakitze ahalmena du tratamendu-eragileak? 5
- 4.- Tratamenduaren arduradunak aukeratu dezake berak nahi duen tratamendu-eragilea? 5
- 5.- Nola arautu behar dira tratamenduaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen arteko harremanak? 6
- 6.- Zein da tratamendu-eragileak egindako tratamenduen arduraduna?..... 6
- 7.- Erregelamendua Europar Batasunean kokatuta dauden tratamendu-eragileei bakarrik ezarri behar zaie? 7
- 8.- Araubide berezia dago Europar Batasunean kokatuta ez dauden edo tratamendua Europar Batasunetik kanpo egiten duten tratamendu-eragileak kontratatzeke? 7
- 9.- Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak kanpora ateratzen badira hirugarren batek egiteko, hirugarren hori jo daiteke tratamendu-eragilezat? ... 8
- 10.- Nahitaezkoa da interesdunei jakinaraztea tratamendu-eragile bat kontratatu dela? 8
- 11.- Zein da tratamendu-eragile akordioek izan behar duten gutxieneko edukia? 8
- I. ERANSKINA 13
- Adibidea: kontratu klausulak baldin eta tratamendu-eragileak datuak bere lokaletan eta bakar-bakarrik bere sistemekin tratatzen dituzten. 13

Tratamendu-eragilea Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (DBEO)

Dokumentu honen helburua da tratamenduaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen arteko harremanetan kontuan hartu behar diren hainbat funtsezko alderdi finkatzea, eta bien arteko harremanaren kudeaketan eragin zuzena duten alderdiak zehaztea.

Era berean, bi alderdion harremana arautzeko dokumentua egiteko orduan kontuan har daitezkeen zenbait orientabide eman nahi ditu, gomendio gisa.

1.- Zer da tratamendu-eragilea eta zein da bere eginkizunik garrantzitsuena?

Tratamendu-eragilea da tratamenduaren arduradunaren izenean, datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde.

Tratamendu-eragile motak eta arduradunekiko harremana arautzeko moduak era askotakoak izan daitezke, datu pertsonalak atzitzea dakarten zerbitzu motak bezala. Hau da, alde batetik daude datu pertsonalak tratatzea helburu duten zerbitzuak (adibidez, enpresa edo erakunde publiko bat, zerbitzarietan informazioa ostatatzeko zerbitzua eskaintzen duena) eta, bestetik, datu pertsonalak tratatzen dituztenak, baina tratamenduaren arduradunaren kontura egiten duten jardueren ondorioz (adibidez, udal zerbitzu publiko baten kudeatzailea).

Definizioa ikusita, argi dagoela ematen du zer den tratamenduaren arduraduna eta zer den tratamendu-eragilea, baina benetako egoeretan ez da hain erraza bereizketa egitea. Bi figurak bereizteko lagungarria da kontuan izatea tratamenduaren arduradunaren eginkizuna dela informazioaren helburuari eta erabilerei buruzko erabakiak hartzea; tratamendu-eragileak, ordea, zerbitzua esleitu dionaren jarraibideak bete behar izaten ditu, esleitutako zerbitzua ematean eskuratu ditzakeen datu pertsonalen tratamendu egokiari dagokionez.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko hogeita seigarren xedapen gehigarriak, Datu pertsonalak babesteari buruzkoak, dio kontratazioa dela eta, kontratistak izaera pertsonaleko datuetara sartu behar badu, eta datuon tratamenduaren erantzulea erakunde kontratatzailea bada, kontratista izango dela tratamenduaren arduraduna. Halakoetan DBEO on ezarritako erregimena ere bete beharko da.

2.- Tratamendu-eragileak zer-nolako tratamenduak egin ditzake bere esku dituzten datuekin?

Tratamendu-eragileak egin ditzake tratamenduaren arduradunak formalki esleitu dizkion tratamendu guztiak, automatizatuak izan ala ez. Tratamenduaren definizioari erreparatzen badiogu, eragiketen sailkapen bat egin dezakegu informazioaren bizi-zikloa kontuan hartuta: datuak bildu, erregistratu, antolatu, egokitu edo moldatu, aukeratu, kontsultatu, erabili, transmisioz komunikatu, hedatu, edo datu horiek eskuratu, alderatu edo interkonektatu, mugatu, ezabatu edo suntsitu ahal izateko beste edozein gaikuntza mota.

Edozelan ere, eragiketok ondo mugatu beharko dira adosten den akordioan.

3 - Zenbateko erabakitzeke ahalmena du tratamendu-eragileak?

Kontratatuta duen zerbitzua emateko, antolaketa eta eragiketa arloan hartu behar dituen erabakiak hartuko ditu tratamendu-eragileak. Baina, ezin izango ditu aldatu helburuak eta erabilerak, eta ezin izango ditu datuak erabili berak ezarritako helburuetarako.

Tratamendu-eragileek hartzen dituzten erabakiek nahitaez bete behar dituzte tratamenduaren arduradunek emandako jarraibideak.

4.- Tratamenduaren arduradunak aukeratu dezake berak nahi duen tratamendu-eragilea?

Tratamenduaren arduradunak aukeratzen duen tratamendu-eragileak baldintza batzuk bete behar ditu: berratu beharko du, DBEOk xedatutakoarekin bat, neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak ezarri eta mantentzeko gaitasuna duela, bai eta ukitutako pertsonen eskubideak babesteko ere. Horrek esan nahi du tratamendu-eragilea aukeratzeko orduan, arduratsu jokatu behar dela.

DBEOren 81. artzoi juridikoak aurreikusten du tratamendu-eragileak ezagutza espezializatuaren, fidagarritasunaren eta baliabideen gaineko berme nahikoak eskaini beharko dituela, Erregelamenduaren baldintzak betetzen dituzten neurri tekniko eta antolakuntzako neurri egokiak ezartzeari begira, tratamenduaren segurtasuna barne.

Tratamendu-eragileak berme nahikoa duela frogatzeko, DBEOk aurreikusten du frogamekanismo moduan balio dezakeela jokabide-kodeetara atxikitzea edo datuak babesteko ziurtagiria edukitzea.

5.- Nola arautu behar dira tratamenduaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen arteko harremanak?

Tratamenduaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen arteko harremana kontratu bidez edo antzeko beste egintza juridiko baten bidez ezarri beharko da. Kontratua edo bestelako egintza juridikoa idatziz egin beharko da, eta formatu elektronikoa ere egin daiteke.

DBEOk duen berrikuntzetako bat da aukera ematen diola tratamenduaren arduradunari harremana arautzeko egintza juridiko aldebakar baten bidez. Edonola ere, egintza juridiko horrek tratamendu-eragilearen egoera zein den ezarri eta finkatu beharko du, egintza juridikoaren ondorioz tratamendu-eragilea juridikoki lotzen badu behintzat. Horren adibide bat izan daiteke administrazio ebazpen bat, jadanik tratamendu-eragileari jakinarazia.

Bestalde, berdin dio akordioa den ala beste era bateko egintza juridikoa den, edukiak nahitaez jaso beharko ditu DBEOk agindutako baldintzak. Aurrerago aipatuko dugu zein diren.

Egintza edo akordioaren edukia egiteko, Europako Batzordeak edo kontrol agintaritzak ezarritako klausula-ereduak erabil daitezke, tratamenduaren arduradunari edo eragileari emandako ziurtapen baten zati direnean ere bai.

Agiri honen 1. Eranskinean jaso diren klausula-ereduak ez dira klausula-eredutzat joko DBEOren 28.8 artikulua ondukoetarako; izan ere, 1. eranskineko klausula-ereduak laguntza bat baino ez dira, eta arduradunek erakundeetako premien arabera moldatzeko dira.

6.- Zein da tratamendu-eragileak egindako tratamenduen arduraduna?

Tratamenduaren arduraduna izango da arduraduna betiko. Beraz, bere ardura izango da datu pertsonalak ondo tratatzea eta ukituen eskubidea betetzen direla bermatzea. Tratamenduaren arduradunak kontu handiz aukeratu eta gainbegiratu behar du tratamendu-eragilea.

7.- Erregelamendua Europar Batasunean kokatuta dauden tratamendu-eragileei bakarrik ezarri behar zaie?

Ez. Erregelamendu hau datu pertsonalen tratamenduari aplikatuko zaio, tratamendu-eragilearen establezimendu batek Batasunaren lurraldean egindako jardueren testuinguruan, kontuan hartu gabe tratamendua Batasunean gertatzen den ala ez.

Era berean, Erregelamendu hau datu pertsonalen tratamenduari ere aplikatuko zaio, interesdunak Batasunean bizi direnean eta tratamendu-eragilea Batasunetik kanpo kokatuta dagoenean eta tratamenduaren jarduerak honako alor hauekin lotuta daudenean:

- a) Batasunean interesdun horientzat dagoen ondasun edo zerbitzuen eskaintza, interesdunek ordainketa egin behar izatea edo ez alde batera utzita.
- b) Interesdun horien portaeraren kontrola, portaera hori Batasunaren barruan gertatzen den neurrian.

8.- Araubide berezia dago Europar Batasunean kokatuta ez dauden edo tratamendua Europar Batasunetik kanpo egiten duten tratamendu-eragileak kontratatzeke?

Erregelamenduak nazioarteko transferentzietarako ezarrita daukan araudi bera bete beharko da tratamendu-eragile akordioen esparruan, Europar Batasuneko ez den herrialde batera datu pertsonalak komunikatzeko.

Hirugarren herrialde batera egiten diren datu transferentziek ezin dute ekarri murrizketarik Erregelamenduak ezarritako pertsonen babes mailan. Hirugarren herrialde horietatik beste hirugarren herrialde batzuetara gerora egiten diren datu transferentziei ere ezarriko zaie printzipio hori.

Babes maila egokia bermatzen ez duten herrialdeetara egiten diren datu transferentziak direnean, tratamenduaren arduradunak ziurtatu beharko du tratamendu-eragilea berme egokiak eskaintzeko gai dela. Edozelan ere, bermatu beharko du interesdunek derrigorrezko eskubideak eta legezko akzio eraginkorrak dituztela eskura.

9.- Datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak kanpora ateratzen badira hirugarren batek egiteko, hirugarren hori jo daiteke tratamendu-eragiletzat?

Bai. Erregelamenduak aurreikusten du datuak babesteko ordezkariak baduela datuetara iristea. Beraz, tratamenduaren enkargu bat formalizatu beharko dute.

10.- Nahitaezkoa da interesdunei jakinaraztea tratamendu-eragile bat kontratatu dela?

Erregelamenduak ez du ezartzen tratamendu-eragile bat kontratatu dela jakinarazi behar denik. Hala ere, egoera jakin batzuetan (adibidez, tratamenduaren edo tratatutako datuen izaera edo kasuak inguruabarrak ikusita) gomendagarria izan daiteke horren berri ematea, datu pertsonalen tratamendua gardenagoa izan dadin.

11.- Zein da tratamendu-eragile akordioek izan behar duten gutxieneko edukia?

Gutxienez, tratamenduaren helburua, iraupena, izaera eta helburua, datu pertsonalen mota eta interesdunen kategoriak, eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak.

Akordioan edo egintzan honako hauek jaso behar dira:

A.- TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN JARRAIBIDEAK

Egindako enkarguari buruzko jarraibideak zehatz dokumentatu behar dira. Zehatz-mehatz identifikatu behar dira zein datu tratamendu egin behar dituen tratamendu-eragileak, emandako zerbitzua eta emateko modua kontuan hartuta. Nahitaez finkatu behar dira argi eta garbi hirugarrenei egin beharreko komunikazioak, arduradunak eragileari esleitutakoak edo emandako zerbitzuetatik datozenak.

Zerbitzua emateko gerta daitezkeen nazioarteko datuen transferentzietan ere bete egin beharko dira tratamenduaren arduradunaren jarraibideak. Batasuneko edo estatu kide bateko Zuzenbideak behartzen badu tratamendu-eragilea datuak transferitzera hirugarren herrialde batera, tratamendu-eragileak berehala eman beharko dio horren berri tratamenduaren arduradunari, tratamendua egin aurretik, Zuzenbide horrexek berak debekatu ezean, interes publikoko arrazoiengatik.

Tratamendu-eragileak uste badu jarraibideren batek Erregelamendua edo datu babesaren arloko batasuneko edo estatu kideetako beste xedapenen bat urratzen duela, tratamendu-eragileak berehala eman beharko dio horren berri tratamenduaren arduradunari.

B.- KONFIDENTZIALTASUN BETEBEHARRA

Finkatu egin beharko da nola berrmatuko duen tratamendu-eragileak datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena duten pertsonak berriazko konpromisoa hartu dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko edo, hala badagokio, konfidentzialtasunari buruzko lege-betebehar baten mende daudela.

Dokumentatu egin beharko da obligazio hori bete dela, eta tratamenduaren arduradunaren esku utzi beharko da.

C.- SEGURTASUN NEURRIAK

Akordioak jaso beharko du tratamendu-eragileak nahitaez hartu behar dituela behar diren segurtasun neurri guzti-guztiak, Erregelamenduaren 32. artikulua dionarekin bat.

Tratamenduaren arduradunaren eginbeharra da arriskuen ebaluazioa egitea, eta horren arabera finkatzea zein segurtasun neurri diren egokienak tratatutako informazioa eta ukitutako pertsonen eskubideak bermatzeko. Era berean, tratamendu-eragileak aztertu beharko ditu tratamenduaren ondorioz egon daitezkeen balizko arriskuak, kontuan hartuz zein bitarteko erabili diren (teknologiak, baliabideak eta abar) eta zein inguruabarrek izan dezaketen eragina segurtasunean, adibidez, tratamendu-eragileak beste tratamendu batzuk ere egiten dituela.

Hemendik aurrera, segurtasun neurriak finkatzeko, segurtasun-neurrien zerrenda zehatz eta zorrotz bat egin daiteke, edo esparru nazionalan edo nazioarteko esparruan aintzatetsitako estandarretara jo.

Beraz, tratamenduaren arduradunak eta tratamendu-eragileak, kontuan hartuta eskura dagoen puntako teknologia eta aplikazioaren kostua, bai eta tratamenduaren nolakotasuna, eremua, testuingurua eta helburuak ere, eta halaber pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako tratamenduak izan ditzakeen askotariko probabilitate eta larritasun-mailako arriskuak, arrisku horiei aurre egiteko adinako arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak hartuko dituzte; besteak beste:

- a) Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.
- b) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, integritate, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.
- c) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna.

- d) Tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeke, ebaluatzeke eta baloratzeko prozesua.

Jokabide-kode bati atxikitzea edo ziurtapen-mekanismo bati atxikitzea baliagarria izango da eginbeharrak betetzen dituela frogatzeko

Tratamenduaren arduradunak eta eragileak behar diren neurriak hartuko dituzte datu pertsonalak eskura dituen eta arduradunaren edo eragilearen agindupean diharduen edozein pertsonak datu horiek ez tratatzeko, arduradunaren jarraibideei kasu eginez baino, noiz eta ez dagoen horretara behartuta Batasunaren edo estatu kideen zuzenbidearen indarrez.

D.- AZPIKONTRATAZIOARI BURUZKO ARAUBIDEA

Akordioak azpikontratazioaren araubidea ezarri beharko du. Erregelamenduak agintzen du tratamenduaren arduradunaren alde aurreko baimen idatzia beharko dela tratamendu-eragileak beste tratamendu-eragile batengana (eragileordea) jotzeko, agindutako zerbitzua burutzeko, horren ondorioz, hirugarren batek tratatu behar baditu datu pertsonalak.

Baimena berariazkoa izan daiteke (erakundearen identifikazioarekin) edo orokorra (azpikontrazioa bakarrik baimenduz, baina erakundea zehaztu gabe).

Baimena orokorra bada, tratamendu-eragileak jakinarazi egin beharko dio arduradunari eragileorde bat dagoela edo horren ordeko beste eragileorde batzuk daudela, arduradunak aldaketen aurka egiteko aukera eduki behar duelako.

Oso baliagarria izan daiteke akordioan edo egintzan jasotzea (idatziz jaso behar da) nola adierazi dezakeen arduradunak kontrako iritzia, eta horretarako zein epe duen.

Edozelan ere, datu pertsonalak babesteari buruzko eta ukitutako pertsonen eskubideei buruzko gauza guztietarako, tratamendu-eragileordeak tratamendu-eragileak bete behar dituen baldintza berak (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun neurriak...) bete beharko ditu, eta, formari dagokionez ere bai (akordio bat idatziz edo egintza juridiko lotesle bat). Eragileordeak ez baditu bere eginbeharrak betetzen, lehendabiziko tratamendu-eragilea izango da beti eragileordearen ez-betetzeen erantzulea tratamenduaren arduradunaren aurrean.

Esparru publikoko kontratuen legedia ezargarria denean, kontratuei buruzko legean jasotako berariazko xedapenak ere hartu beharko dira kontuan.

E.- INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

Zehaztu beharko da nola lagunduko dion tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradunari Erregelamenduaren III. kapituluari jasotako interesdunen eskubideak egikaritzeko eskubideei erantzuteko eginbeharra betetzen:

- Datu pertsonalak atzitzea
- Zuzentzea
- Ezabatzea (ahaztua izateko eskubidea)
- Tratamendua mugatzea
- Datuen eramangarritasuna
- Datuei aurka egitea
- Erabaki automatizatu indibidualizatuen menpe ez egotea (profilak egitea barne)

Akordioak argi eta garbi jaso beharko du tratamendu-eragileak jaso eta erantzun egin behar dituela eskubide horiek egikaritzeko eskabideak edo berariaz ezarri beharko du tratamendu-eragilearen betebeharrak bakarrik dela tratamenduaren arduradunari jakinaraztea eskubide bat baliatu dutela.

Lehenengo kasuan, akordioak jaso beharko du eskubideak egikaritzeko eskabideak nola jasoko diren (forma) eta zein epetan, eta, halakorik badagokio, nola eta zein epetan erantzun behar diren ere bai. Bigarren kasuan, finkatu beharko da nola (forma) eta zein epetan jakinarazi behar zaion eskabidea, eta, hala badagokio, eskubidea egikaritzeari buruzko informazioa tratamenduaren arduradunari jakinarazi behar zaio.

Bestalde, ukituek informaziorako eskubidea dutenez, ez dute eskatu behar; beraz, ez dago Erregelamenduaren 28.3 e) artikuluko aurreikuspenen menpe. Hala eta guztiz ere, tratamendu-eragileak bildu behar dituzten datuak, gomendagarria da akordioan edo egintza juridikoan jasotzea nola (forma) eta noiz gauzatu behar den informaziorako eskubidea.

F.- TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI LAGUNTZEA EGINBEHARRAK BETETZEN

Zehaztu egin beharko da nola lagundu behar dion tratamendu-eragileak arduradunari honako eginbeharrak betetzen: segurtasun neurriak ezartzearen inguruko eginbeharrak betetzen, datu pertsonalen segurtasunaren urraketak jakinarazten datuak babesteko agintaritzei, datu pertsonalen segurtasunaren urraketak jakinarazten interesdunei, datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioak egiten, eta, hala badagokio, aldez aurreko kontsultak egiten.

Dena den, tratamenduaren izaerak eta tratamendu-eragilearen esku dauden datuen izaerak erabakiko dute eginbeharrak hau bete ala ez.

Arduradunak eragileari eskuordetu ahal dio eginbeharrak betetzeko zeregina.

G.- DATUEN DESTINOA PRESTAZIOA BUKATZEN DENEAN

Aurreikusi behar da ea tratamendu-zerbitzuaren prestazioa amaitutakoan tratamendu-eragileak datu pertsonalak edo horien kopiak ezabatu beharko dituen ala tratamenduaren arduradunari edo horrek izendatutako beste tratamendu-eragile bati bueltatu beharko dizkion.

Akordioak argi eta garbi jaso beharko du bietatik zer aukeratu duen arduradunak, eta nola (forma) eta zein epetan gauzatu beharko den aukeratutakoa.

Baina, datu pertsonalak tratamenduaren arduradunari bueltatu beharko zaizkio, gorde egin behar direlako, Batasuneko edo estatu kideetako Zuzenbideak xedatutakoaren arabera.

Hala ere, tratamendu-eragileak datuen kopia bat gorde dezake, baina, behar den bezala blokeatuta, zerbitzuaren prestazioak gauzatzeagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.

H.- TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREKIN LANKIDETZA, ERREGELAMENDUA BETETZEN DELA EGIAZTATZEKO

Nahitaezkoa da ezartzea tratamendu-eragileak betebeharra duela tratamenduaren arduradunaren esku uzteko artikulua honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzeke behar den informazioa, bai eta auditoriak egiten utzi eta lagundu behar duela ere, ikuskaritzak barne, egilea arduraduna edo arduradunak baimendutako auditorea denean.

I. ERANSKINA

Adibidea: kontratu klausulak baldin eta tratamendu-eragileak datuak bere lokaletan eta bakar-bakarrik bere sistemekin tratatzen dituenean.

(Klausula hauek orientagarriak dira eta egiten den tratamenduaren inguruabarrei egokitu behar zaizkie)

1. Tratamendu-enkarguaren helburua

Klausula hauen bitartez, ondoko entitatea gaitzen da ondoko zerbitzua emateko behar diren datu pertsonalak tratatzeko, segidan aipatzen den tratamenduaren arduradunaren kontura:

Tratamendu-eragilea (entitatea):.....
Tratamenduaren arduraduna:.....
Zerbitzua:.....

Tratamendua honetan datza: (zerbitzuaren deskribapen zehatza)

Hona egingo diren tratamendu zehatzak:

- | | |
|--|--|
| <input type="checkbox"/> Bilketa | <input type="checkbox"/> Erregistratzea |
| <input type="checkbox"/> Egituratzea | <input type="checkbox"/> Aldatzea |
| <input type="checkbox"/> Kontserbatzea | <input type="checkbox"/> Aukeratzea |
| <input type="checkbox"/> Kontsultatzea | <input type="checkbox"/> Komunikatzea transmisio bidez |
| <input type="checkbox"/> Hedatzea | <input type="checkbox"/> Interkonexioa |
| <input type="checkbox"/> Erkatzea | <input type="checkbox"/> Mugatzea |
| <input type="checkbox"/> Ezabatzea | <input type="checkbox"/> Suntsitzea |
| <input type="checkbox"/> Beste batzuk | <input type="checkbox"/> Komunikatzea |

2. Informazioaren identifikazioa

Enkargu honen xedea betetzeko prestazioak gauzatzeko, arduradunak behean aipatzen den informazioa jarriko du eragilearen esku.

Arduraduna (erakundea / organoa):
Eragilea (erakundea):

-
-

3. Iraupena

Akordioaren iraupena:¹

Kontratua bukatutakoan, tratamendu-eragileak ezabatu / arduradunari itzuli / arduradunak izendatzen duen beste eragileari itzuli (adierazi hiruretatik zein) beharko dizkio datu pertsonalak eta bere esku dituen kopiak ezabatu beharko ditu.

4. Tratamendu-eragilearen betebeharrak

Tratamendu-eragilea eta bertako langileek nahitaez betebeharrekoak:

- a. Enkargu honen helburua gauzatzeko baino ez dituzte erabiliko tratatu beharreko datu pertsonalak edo bere kontura biltzen dituenak. Ezingo ditu datuak erabili bere helburu propioetarako.
- b. Datuak tratamenduaren arduradunaren jarraibideak aintzat hartuta tratatu beharko ditu.

Tratamendu-eragileak uste badu jarraibideren batek Erregelamendua edo datu babesaren arloko batasuneko edo estatu kideetako xedapenen bat urratzen duela, tratamendu-eragileak berehala emango dio horren berri tratamenduaren arduradunari.

- c. Erregistro² bat edukitzea, idatzita, arduradunaren kontura egindako tratamendu jardueren kategoriekin. Honako informazioa jaso beharko da:
 1. Tratamendu-eragilearen edo eragileen izena eta harremanetarako datuak, eta eragileak bere gainera dituen arduradun bakoitzarenak, eta, hala badagokio, arduradunaren edo eragilearen ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.
 2. Tratamendu arduradun bakoitzaren kontura egindako tratamendu kategoriak.
 3. Halakorik egonez gero, hirugarren herrialde bati edo nazioarteko erakunde bati egindako datu pertsonalen transferentziak, hirugarren herrialdearen edo nazioarteko erakundearen identifikazioa barne; eta Erregelamenduko 49. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan adierazitako transferentziak badira, berme egokien dokumentazioa.
 4. Honako hauei buruzko segurtasun neurri teknikoiei eta antolakuntzazkoei buruzko deskribapen orokorra:

¹ Zenbaitetan, bereziki administrazio zuzenbidearen menpeko kasuetan (hitzarmenak, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak eta abar), enkarguaren iraupenak muga bat izango du, eta bat etorriko da zerbitzuak emateko indarrean dagoen legediak ezarritako iraupenarekin

² 1. eta 2. ataletako betebeharrak ez zaizkie ezarriko 250 langile baino gutxiagoko enpresa eta organizazioei, honakorik ez bada gertatzen behintzat: egiten den tratamenduak arriskuak ekartzea interesdunen eskubideei eta askatasunei, tratamendua ez izatea noizbehinkakoa bakarrik edo Erregelamenduko 9. artikuluko 1. zenbakian zerrendatutako datu pertsonalen kategoria bereziak edo Erregelamenduko 10. artikulua aipatzen dituen kondena eta arau-hausteei buruzko datu pertsonalak tratatzea.

- a) Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.
 - b) Tratamendu sistemen eta zerbitzuen konfidentzialtasun, integritate, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.
 - c) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna.
 - d) Tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.
- d. Datuak ez komunikatzea hirugarrenei, tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena eduki ezean, legez onargarriak diren kasuetan.

Tratamendu-eragileak tratamenduaren arduradun beraren tratamendu-eragileei komunikatu ahal dizkie datuak, baina tratamenduaren arduradunaren jarraibideak betez. Halakoetan, tratamenduaren arduradunak alde aurretik eta idatziz esango du zein erakunderi komunikatu ahal zaizkien datuak, bai eta komunikazioa egiteko bete beharko diren segurtasun neurriak ere.

Tratamendu-eragileak datu pertsonalak transferitu behar baditu hirugarren herrialde batera edo nazioarteko organizazio batera, hala xedatzen duelako Batasuneko edo estatu kideen zuzenbideak, tratamendu-eragileak berehala eman beharko dio horren berri arduradunari, tratamendua egin aurretik, zuzenbide horrexek berak debekatu ezean, interes publikoko arrazoiengatik.

e. Azpikontratatzea

(Aukera bat hautatu)

A Aukera *Ez azpikontratatzea kontratu honen xede diren prestazioetako bat bera ere ez, baldin eta datu tratamenduak egitea badakarte, eragilearen zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko behar diren zerbitzu osagarriak izan ezik.*

Beharrezkoa bada tratamenduren bat azpikontratatzea, alde aurretik eta idatziz eman beharko zaio horren berri arduradunari, honako epea baino lehen:³. Eta adierazi beharko du zein tratamendu azpikontratatu nahi dituen, argi eta garbi identifikatuz zein den enpresa azpikontratatzailea eta bere harremanetarako datuak. Ezarritako epean tratamenduaren arduradunak ez badu kontrakorik esaten, azpikontratazioa egin ahal izango da.

Azpikontratatzaileak, tratamendu-eragilearen kategoria duenez, bete egin beharko ditu agiri honetan tratamendu-eragilearentzat ezarrita dauden betebeharrak eta arduradunak ezartzen dituen jarraibideak ere bai. Hasierako tratamendu-eragileak du harreman berria arautzeko ardura eta eragile berriak

³ Gomendatzen da alde aurreko gutxieneko epe bat finkatzea komunikatzeko.

(eragilerodea) datu pertsonalak babesteari buruzko eta ukitutako pertsonen eskubideei buruzko gauza guztietarako, hasierako tratamendu-eragileak bete behar dituen baldintza berak (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun neurriak...) bete beharko ditu, formari buruz ere bai. Eragileordeak ez baditu bere eginbeharrak betetzen, lehendabiziko tratamendu-eragilea izango da beti ez-betetzeen erantzulea tratamenduaren arduradunaren aurrean.

B Aukera

Tratamendu-eragileari baimena ematen zaio honako enpresarekin kontratatzeko ondoko tratamenduak ekarriko dituzten prestazioak

Enpresa:

Tratamenduak:

Beste enpresa batzuekin azpikontratu nahi izanez gero, tratamendu-eragileak idatziz jakinarazi beharko dio tratamenduaren arduradunari, argi eta garbi identifikatuz zein den enpresa azpikontratatzailerak eta bere harremanetarako datuak. Azpikontratazioa egin ahal izango da, tratamenduaren arduradunak ez badu kontraktorik esaten honako epean:
.....⁴

Azpikontratatzailerak ere tratamendu-eragilearen kategoria izango duenez, bete egin beharko ditu agiri honetan tratamendu-eragilearentzat ezarrita dauden betebeharrak eta arduradunak ezartzen dituen jarraibideak. Hasierako tratamendu-eragilek du harreman berria arautzeko ardura, eta eragile berriak (eragilerodea) datu pertsonalak babesteari buruzko eta ukitutako pertsonen eskubideei buruzko gauza guztietarako, hasierako tratamendu-eragileak bete behar dituen baldintza berak (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun neurriak...) bete beharko ditu, formari dagokionez ere bai. Eragileordeak ez baditu bere eginbeharrak betetzen, tratamenduaren arduradunaren aurrean lehendabiziko tratamendu-eragilea izango da beti ez-betetzeen erantzulea.

- f) Sekretu gorde beharrari eustea enkargu honen ondorioz atzitu dituen datu pertsonalei dagokienez. Enkarguaren xedea bukatutakoan ere bai.
- g) Bermatzea, datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen konpromisoa hartzen dutela, berriaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko⁵ eta dagokion segurtasun neurriak hartzeko. Horien gaineko informazioa eman beharko zaie era egokian.
- h) Tratamenduaren arduradunaren eskura izatea beti aurreko atalean jasotako obligazioa betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

⁴ Gomendatzen da gutxienezko alde aurreko epe bat ezartzea komunikazioa egiteko.

⁵ Estatutu izaerako konfidentzialtasun betebeharra badago, berriaz jaso beharko da estatutu izaerakoa dela eta betebeharraren helmena ere bai.

- i) Bermatzea datu pertsonalak babesteari buruzko arloko prestakuntza egokia ematen zaiela datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsoneri.
- j) Tratamenduaren arduradunari laguntzea honako eskubideei erantzuten:
1. Atzitzea, zuzentzea, ezerezte eta aurka egitea
 2. Tratamendua mugatzea
 3. Datuen eramangarritasuna
 4. Erabaki automatizatu indibidualizatuen menpe ez egotea (profilak egitea barne)

(Aukera bat hautatu)

A Aukera *Tratamendu-eragileak ebatzi beharko du, tratamenduaren arduradunaren kontura eta ezarritako epearen barruan, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunerako eta erabaki automatizatu indibidualizatuen menpe ez egoteko eskubideak, beti ere enkarguaren xede diren datuei dagokienez.⁶*

B Aukera *Ukituek egikaritu nahi badituzte datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunerako eta erabaki automatizatu indibidualizatuen menpe ez egoteko eskubideak, tratamendu-eragileak posta elektronikoz komunikatu behar du hori helbide honetara:(arduradunak adierazitako helbidea). Komunikazioa berehala bidali beharko da, eskabidea jasotzen den egunaren biharamunean beranduen⁷. Eta komunikazioaz gain, hala badagokio, eskabidea ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako informazioak ere bai.*

- k) Informazio eskubidea

(Aukera bat hautatu)

A Aukera *Tratamendu-eragileak egin behar diren datu tratamenduei buruzko informazioa eman beharko du datu bilketa egiteko unean. Tratamenduaren arduradunarekin adostu beharko ditu informazioa emateko formatua eta testua, datu bilketa hasi baino lehen.*

B Aukera *Tratamenduaren arduradunak du informaziorako eskubidea betetzeko ardura eta datu bilketaren unean egin behar du.*

- l) Jakinaraztea datuen segurtasunaren urraketak

⁶ Tratamenduaren arduradunak erabaki behar badu ere eragileari eskuordetzak egitea, oso gomendagarria da hori egitea datuak eragilearen sistemetan bakarrik tratatzen diren kasuetan.

⁷ Epe eta bitarteko horiek gomendatzen dira tratamenduaren arduradunak eskabidea ebatzi dezan ezarritako epearen barruan.

Tratamendu-eragileak bere ardurapena dituen datu pertsonalekin gertatzen diren eta bera jakitun den segurtasun urraketa guztiak jakinarazi beharko dizkio, atzerapen bidegaberik gabe, eta gehienez ere epe honetan:⁸ tratamenduaren arduradunari, gertaera dokumentatzeko eta komunikatzeko behar den dokumentazio guztiarekin batera.

Ez da jakinarazpenik egin beharko segurtasun urraketa ez bada arriskutsua pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako.

Honako informazioa eman beharko da gutxienez, informazioa edukiz gero:

- a) Datu pertsonalen urraketa azalpena, bai eta, ahal bada, eragindako interesdunen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua eta eragindako datu pertsonalen erregistroen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua.
- b) Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.
- c) Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak.
- d) Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak hartu dituen edo proposatu dituen neurriak; horien artean egongo dira, hala badagokio, urraketa ondo negatiboak gutxitzeko neurriak.

Informazio guztia batera ematea ezinezkoa bada, ezintasuna zenbaterainokoa den aintzat hartu eta informazioa mailaka emango da, atzerapen bidegaberik gabe.

(Hautatu aukera bat ala biak)⁹

A Aukera Tratamendu-eragileak du datuen segurtasun urraketa datuak babesteko agintaritzari komunikatzeko ardura.

Komunikazioan honako informazio hau jasoko da, gutxienez:

- a. Datu pertsonalen urraketa azalpena, bai eta, ahal bada, eragindako interesdunen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua eta eragindako datu pertsonalen erregistroen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua.*
- b. Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.*
- c. Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak.*
- d. Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak hartu dituen edo proposatu dituen*

⁸ Epea 72 ordukoa baino txikiagoa izan beharko da beti.

⁹ Nahiz eta tratamenduaren arduradunak izan kontrol agintaritzari datuen segurtasun urraketa berri emateko ardura, gertatzen bada datuak tratamendu-eragilearen sistemekin bakarrik tratatu behar direla, halakoetan gomendagarria izan daiteke eginkizun horiek tratamendu-eragileari eskualdatzea.

neurrien azalpena; horien artean egongo dira, hala badagokio, urraketaren ondorio negatiboak gutxitzeko neurriak.

Informazio guztia batera ematea ezinezkoa bada, ezintasuna zenbaterainokoa den aintzat hartu eta informazioa mailaka emango da, atzerapen bidegaberik gabe.

B Aukera

Tratamendu-eragileak du datuen segurtasun urraketak interesdunei ahalik eta azkarren komunikatzeko ardura, baldin eta urraketak arrisku handiak ekarri ahal badizkie pertsona fisikoen eskubideei eta askatasunei.

Komunikazioa hizkera argia eta erraza erabilia egin beharko da eta honakoak jaso beharko ditu:

- a. Datu pertsonalen segurtasunaren urraketaren azalpena.*
- b. Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, edo informazio gehiago eman dezakeen beste harremangune batenak.*
- c. Datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak.*
- d. Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko tratamenduaren arduradunak hartu dituen edo proposatu dituen neurrien deskribapena; neurri horien artean egongo dira, hala badagokio, urraketaren ondorio negatiboak gutxitzeko neurriak.*

m) Laguntzea tratamenduaren arduradunari datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioak egiten, hala dagokionean.

n) Laguntzea tratamenduaren arduradunari kontrol agintaritzari aurretiko kontsultak egiten, hala dagokionean.

o) Arduradunaren esku jartzea bere obligazioak betetzen dituela egiaztatzeko behar den informazio guztia, eta arduradunak berak egin beharreko edo arduradunak baimendutako beste auditore batek egin beharreko auditoriak edo ikuskaritzak egiteko behar dena ere bai.

p) Honako segurtasun neurriak ezartzea:

(Hautatu aukera bat ala biak)

A Aukera

Arduradun edo eragile honek (.....) ¹⁰ honako datan (.....) egindako arriskuen ebaluazioaren araberako segurtasun neurriak:

-*
-*
-*

¹⁰ Adierazi ea tratamenduaren arduradunak ala eragileak egin duen arriskuen ebaluazioa.

B Aukera *Agiri honetan ezarritako segurtasun neurriak*¹¹

Edozelan ere, mekanismoak ezarri beharko ditu honako helburuarekin:

- a) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, integritate, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzea.
 - b) Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzea.
 - c) Tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna aldian-aldian egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesua.
 - d) Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea, hala badagokio.
- q) Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea¹² eta bere identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea arduradunari.
- r) Datuen destinoa

(Hiru aukeretatik bat hautatu)

A Aukera *Tratamenduaren arduradunari itzultzea datu pertsonalak, eta, hala badagokio, euskarriak ere bai, prestazioa bukatutakoan.*

Datuak itzultzeak esan nahi du eragileak erabili dituen ekipo informatikoetan dauden datu guztiak ezabatu beharko direla.

Hala ere, tratamendu-eragileak datuen kopia bat gorde dezake, baina, behar den bezala blokeatuta, zerbitzuaren prestazioak gauzatzeagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.

B Aukera *Tratamenduaren arduradunak idatziz izendatzen duen tratamendu-eragileari itzultzea datu pertsonalak, eta, hala badagokio, euskarriak ere bai, prestazioa bukatutakoan.*

Datuak itzultzeak esan nahi du eragileak erabili dituen ekipo

¹¹ Adierazi ezarri beharreko neurriak jasotzen dituen portaera kodea, zigilua, ziurtapena edo estandarrak.

¹² Noiz izendatu behar da datuak babesteko ordezkaria?

- a) Tratamendua egiten duena agintaritza edo erakunde publiko bat bada, beren funtzio judiziala betez diharduten epaitegien kasuan izan ezik.
- b) Tratamenduaren izaera, irismena edo helburuak direla-eta tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen jarduera nagusiak baldin badira interesdunen eskala handiko ohiko behaketa sistematiko bat eskatzen duten eragiketak.
- c) Tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen jarduera nagusiak baldin badira datu kategoria berezien eskala handiko tratamenduak edo kondena eta arau-hauste penalei buruzko datu pertsonalen tratamenduak.

informatikoetan dauden datu guztiak ezabatu beharko direla.

Hala ere, tratamendu-eragileak datuen kopia bat gorde dezake, baina, behar den bezala blokeatuta, zerbitzuaren prestazioak gauzatzeagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.

C Aukera

Datuak suntsitzea prestazioak amaitutakoan. Datuak suntsitu ondoren, tratamendu-eragileak idatziz egiaztatu beharko du suntsitu egin direla, eta tratamenduaren arduradunari eman beharko dio ziurtagiria.

Hala ere, tratamendu-eragileak datuen kopia bat gorde dezake, baina, behar den bezala blokeatuta, zerbitzuaren prestazioak gauzatzeagatik erantzukizunen bat egotea gerta baitaiteke.

5. Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak

Hona tratamenduaren arduradunaren eginbeharrak:

- a) Dokumentu honetako 2. klausulan aipatzen diren datuak ematea tratamendu-eragileari.
- b) Tratamendu-eragileak egin beharreko operazioek datu pertsonalen babesean izango duten inpaktuaren ebaluazioa egitea.
- c) Dagozkion alde zuzeneko kontsultak egitea.
- d) Tratamendu-eragileak Erregelamendua betetzen duela zaintzea tratamendua egin baino lehen eta tratamendua egin ostean ere bai.
- e) Tratamendua gainbegiratzea, ikuskaritzak eta auditoriak barne.